

Unamuno eta euskara

Argia, 1.129. zk., 1986-12-14.

Aspaldiko gaia dut hau¹.

Hala ere, maiz eskatzen didate mahai borobilen batean gai honetaz zerbait esateko, eta artikuluren bat idazteko ere, gaur gertatzen zaidan bezala. Gertatzen dena zera da, jaiotzen direla euskaldun berriak, gaur ere badela gai honetaz kezkatuta dagoenik, eta gehienbat Unamunoren erabilera edo maneiua dela kausa: "Unamunok aspaldi esan zuen euskara sitsak jota dagoela!"

Argudio hau arerioarena da; errazago baitzaio izen handia duen gizon jakintsu honen asmo bat erabiltzea, bere kabuz eta gaur arrazoinak ematea baino. Eta, egia esan, don Miguel de Unamunok ez du hau merezi. Ez bere ahoan jartzen dutena gezurra delako; egia baita; baina erabilera edo manipulazio hori legezko ez delako baizik. 1901ean Bilboko Lore-jokoetan esan zituenak esan eta gero gaztelau batzuen artean sortu zuen pozaren berri izan zuenean, honelako hitzak esan zituen: "*Zuek nik esandakoaz poztu zarete, ez horren balioaz, baizik eta euskalduna den guztiari gorrotoa diozutelako!*".

Nik gaur honetaz laburpen bat egin behar dudanez, hara puntuak:

1) Egia osoa da Unamunok euskararen etorkizunaz etsi egin zuela, eta bere zen biribiltasunak bultzata, hil-kanpaiak joaz aritu zela; honek asko mindu gintuela euskaldunak.

2) Linguistika zientzia bezala berria da; ez zen, gainera, bere arloa. Hizkuntzak ikasi bai, egin zituen, irakurtzeko moduan, baina ez zen hizkuntzalaria. Bestalde, euskara apur bat besterik ez zuen ikasi: "*Yo he escrito poco en vascuence –dio 1897an, 33 urte zituela, Emiliano Arriagari idazten dion eskutitz batean– por su conocimiento y uso para mí adquirido y reflejo, pero he escrito algo: un saludo en prosa para el árbol de Guernica, que se publicó en la revista Euskalerría,² y algunas poesías inéditas*".³

Euskaraz dakienak ikusiko du berez lantxo hauek zein eskasak diren.

3) Gure artean gehien aipatzen dena, 1888an, karrera amaitu eta Euskalerrian lan bila zebilenean euskarazko katedra batera egin zuen agerpena da; Azkue izan zen irabazle, eta honez gero gordeko zuela halako erresumin bat. Gertatuak gertatu, nola hartuko zuten bada Bilbon euskarazko maisu bezala hilabete batzu lehenago, bere tesian, euskarari hain bete-betean heriotza igarri ziona?

4) Norbaitek hau eta Lore-jokoetako hura gogorazten badizkigu, esan diezaiokegu don Migelek honelako zorrozkeriak beste gaitaz ere berdinak idatzia dela; hara:

¹ *Unamuno y el vascuence*, Edit. Ekin, Buenos Aires, 1966; berrargitalpena, Ediciones Vascas, Donostia, 1979.

² *Euskalerría*, VI, 243 s.

³ "Gabon abestia". Onaindia-ren Antologia, 1954, 675.

espainolismoa, Salamanca, Gaztela, politika, Errepublika, Jainkoa, erlijioa, Eliza, Catalunya, gai batzu aipatzeko. Zorrotza bait zen. Etimologista handia, saiolari aparta, poeta oso ona, eta filosofia eta teologiaren inguruan zorrotz aritu zena, pentsalari aparta, eta gizon bezala xuxena, zintzoa. Eta batez ere, pentsatzen zuena zuzenki edonori arpegiratzen zion gizon betea.

Honela, bere osotasunean, hartu behar dugu don Miguel de Unamuno, ez bestela. Alderdikeri batek eraginda edo maneiatu nahi duenak, aurkituko dio ertz franko, eta, noski, gure kasuan euskaltzaletasunaren aurka ekiteko alkaguete modura erabiltzea ez da gaiztakeria besterik.

Nik neuk orain dela aste pare bat Donostian Aranguren filosofoaren inguruan eratu zen mahai borobilean parte hartzerakoan, Unamuno gai, esan nituenak partzialki hartu eta egunkari batean halako don Migelen aurkako nire jarrera bat salatu didate. Egia da esan nuela: "euskal idazle kaskarra zela, politikan aldakorra, eta nobelista txarra"; egia da hala esan nuela, egia dela uste baitut. Baina beste gauza batzu ere aipatu nituen. Ez nintzen inolatan ere, ordea, osotasunean ukakor agertu. Euskara aipatuko zuen bakarra neu izango nintzelako ustetan (eta halaxe gertatu) gai hau bi hitzetan benik esan behar nuen. Hortik kanpora, pertsonaia handia izan zen Unamuno, eta ez nion neuk hil zenetik 50. urtebetetzean itsusikeria bat egingo.

Ez du hori merezi, eta.